

**ZUMAIA LANTZEN S.A.ko
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA.**

90. AKTA

Zumaian bildu da 2004ko abenduaren 27an, ZUMAIA LANTZEN S.A.ko Administrazio Kontseilua

PRESENTEAK :

Presidentea : Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola andrea

Batzarkideak: Iñaki Aguirrezabalaga Alkorta jauna
Emiliano Cabañas González
Asier Esnal Albizu jauna.
Manuel Zubia Artabe jauna

Idazkaria : Miren Etxezarreta Garmendia andrea.

Bertan izan dira, Luciano Pagaegi jauna, arkitektoa eta Tomas Eizmendi jauna ESARBE S.A.ren izenean.

EGUNEKO AZTERGAIK.

1. 2004ko azaroaren 15ean egindako 89. Kontseiluaren akta irakurri eta onartzea, hala badagokio

2004ko azaroaren 15ean egindako 89. Kontseiluari dagokion akta irakurri eta aho batez onartu da, zuzenketarik egin gabe.

2. Informazio orokorra.

- **2.1. Egurko koop eta Zue L.S.A.ren egoera**

Esarbe S.A.ko ordezkariak jakinarazi du Egurko Koop eta Zue L.S.A elkarteek ADU-21eko hirigintza karga dela eta ordainketa batzuk egiteko dituztela.

Egurko Koop. enpresak 244.903,26 euroko zorra du oraindik, orain arte behin behineko lau ordainketa egin ditu, guztira 636.835,89 euro ordaindu baititu. Aldiro-aldiri egiten zaizkion erreklamazioei erantzunez, ordainketak atzeratzeko formulak proposatzen ditu

eta horren arabera, aldi behin ordainketak egiten ditu, baina Zumaia Lantzen S.Ak ez du onartu ordaintzeko formula hori.

Zue L.S.A.ri 49.285,45 euro falta zaizkio ordaintzeko, orain arte lau ordainketa egin ditu eta guztira 93.549,44 euro pagatu ditu. Ordaintzeko egiten zaizkion eskaerei erantzunez, zatikako ordainketak egiten ditu modu arbitrarioan.

Kasu bietan premiamendu-bidez erreklamatzeko prozesuari enbargo espedientea bideratzea falta zaio, orain arte hori ez bideratzea zuhurratzen jo da enpresen egoera soziala kontuan hartuta.

Gainera, Zue L.S.A.ren aldeko epai bat dago Birzatiketaren aurka jarri zuten errekurso baten aurrekoa. Enpresak alegatu zuen ADU-21 lurzoru urbanizagarria zela eta ez hiri-lurra. Epai horren kontra kasazio errekursoa dago jarrita Goreneari. Zue L.S.A.ren tesiak aurrera egingo balu, Birzatiketa berriro hasi beharko litzateke, kontuan hartuta Arau Subsidiarioen berrikusketa onartuta, lurzoria hiri-lur izendatzea eztabaida ezina izango litzatekeela.

Gerentziak azaldu du kontu honetan dagoen arazorik handiena kobrantza bermatzea dela. Partzelaren gaineko hirigintza-karga Jabetza Erregistroan inskribatuta egoteak dakarren bermea bertan behera gelditzen da inskribatu eta 7 urtera, eta epe hori igaro da dagoeneko. Ikuspuntu horretatik, Birzatiketa berria egiteak 7 urteko epe berria ekarriko luke.

Kontseiluak uste du komeni dela Gorenak behin betiko epaia eman arte itxarotea, eta orduan erabakitzea zer egin.

- 2.2.- Lursailak erostea:

Jesus Maria Egaña Etxabe jaunarekin eta Odriozola anaiekin hasierako akordio batera iritsi da, 1. Sektorean dituzten lursailak erosteko, metro karratua 95 euroan ordaintzeko. Akordioa abenduaren 23koa da eta orain, egin beharreko kontratuen xehetasunak lotzen ari dira.

- 2.3.- Obren egoera:

ADU-21 ertzeko pasealekua luzatzeko obra ia bukatuta dago, pintatzea eta ezpondei amaiera ematea besterik ez da falta.

ALAI urbanizazioko obren lehen fasea egin da. Gabon sasoiaren obrak etenda egon dira.

Estazio kaleko pabilioiak botatzeko lanak urtarrilaren erdi aldera hasiko dira, 2. Sektoreko etxebizitzaren obren ondorioz pilatutako materialak kentzen dituztenean.

- 2.4.- Kooperatibei buruzko informazioa:

Etxe-Onako Babes Ofizialeko 22 Etxebizitzetako bat eskuratzeko zerrenda antolatzeke zozketa egin ondoren, zerrendako lehenengo 40 lagunei bilera baterako deia egin zitzaion urtarrilaren 12rako. Bilera horretan, etxebizitzaren ezaugarrien berri emango zaie, eta

esleipendunen zerrendan sartzeko zein dokumentazio ekarri beharko duten ere jakinaraziko zaie.

Puntanueta Kooperatibak egiten dituen Etxebizitza Tasatuak eskuratzeko zerrenda antolatzeke zozketa urtarrilaren 14an egingo da.

Sagarbide Koop-eko bazkideen artean etxebizitzak (40 Etxebizitza tasatu) esleitzeko zozketa 2004ko urtarrilaren 28an egingo da.

2004ko abenduaren 18, 29 eta 30ean, eta 2005eko urtarrilaren 8an bisitak egiten ari dira Geretxueta kooperatibako bazkideen etxebizitzetara.

3. Zumaiako 2. sektoreko (Puntanueta) (III. faseko) Lur-berdinketa lanak esleitzea.

Zumaiako 2. Sektoreko (Puntanueta) (III. faseko) Lur-berdinketa Lanak egiteko jaso diren proposamenak ireki dira.

Aurkeztutako eskaintzen konparazio taula aurkeztu da.

Kontseiluak erabaki du obrak EXCAVACIONES ABALLA S.L. enpresari esleitzea 287.239,28 euroko prezioan, elkartearen interesetarako eskaintzarik egokiena dela iritzi diolako.

4. Zumaiako AU 07 Ardantzababideko, Exekuzio Unitateko Konpentsazio Batzordearekin Hitzarmena, Zumaiako Arau Subsidiarioen 2. Sektorera (Puntanuetara) Babes Ofizialeko 17 etxebizitza eramateko.

Zumaiako Arau Subsidiarioetako 2. Sektorera (Puntanuetara) Babes Ofizialeko 17 etxebizitza eramateko ZUMAIAKO AU 07 ARDANTZABIDEKO EXEKUZIO UNITATEKO KONPENTSAZIO BATZORDEAREN ETA ZUMAIA LANTZEN S.A.ren arteko hitzarmen proposamenaren berri eman da.

Kontseiluak aho batez onartu du hitzarmen proposamena, proposamena akta honekin batera joango da, eta ohiko ahaldunei, Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola presidenteari eta Tomas Eizmendi Najerari ahalmena eman zaie hitzarmen hori sinatzeko.

5. Promociones Torreaga S.L.rekin Hitzarmena, UE 12.2 (Torreaga) Exekuzio Unitateko Babes Ofizialeko Etxebizitzak Zumaiako Arau Subsidiarioen 1. Sektorera aldatzeari buruzkoa.

UE 12.2 (Torreaga) Exekuzio Unitateko Babes Ofizialeko Etxebizitzak Zumaiako Arau Subsidiarioen 1. Sektorera aldatzearen inguruan ZUMAIA LANTZEN S.A. eta PROMOCIONES TORREAGA S.L.ren arteko hitzarmen proposamena irakurri da.

Aldeko lau botorekin eta Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jaunaren abstentzioarekin Kontseiluak onartu du proposamena, eta ohiko ahaldunei, Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola presidenteari eta Tomas Eizmendi Najerari ahalmena eman zaie hitzarmen hori sinatzeko.

6. Itzartu programa martxan jartzea.

Tomas Eizmendi jaunak Itzartu programaren barruan sartzen diren obrak zein diren esan du eta azaldu du Eusko Jaurlaritzak gomendatu duela ondorengo lanei lehentasunez ekitea:

- Torreberri eraikina berreraikitzea.
- Odieta-Eusebio Gurrutxaga berriro urbanizatzea.
- Sorazu-Erribera kaleak berriro urbanizatzea.
- San Joseko baratzak berriro urbanizatzea.

Jarduketa hauen inguruan, beste batzuk egiteko aukera dago, eta Itzartu programan sartzen ez diren arren, komeniko litzateke horiek egiteko aukerak aztertzea, honako hauek izango lirateke:

Eusebio Gurrutxagan lur-azpiko aparkalekuak
Odieta etxebizitzak berritzea

Presidenteak azaldu du zer nolako zailtasunak dauden Sorazu-Erribera berriro urbanizatzeko, eta hortik atera den ondorioa da, gainerako jarduketetan zentratzea komeni dela. Era berean, azaldu du Eusko Jaurlearitzari galdera egin zaiola eta ez dagoela inolako eragozpenik Itzartu programa gauzatuko duena ZUMAIA LANTZEN S.A. izateko %100 udal jabegokoa den Sozietate Publikoa den aldetik.

Jarduketen hasiera ahalik eta gehien bizkortzeko eta egin beharreko lanen ezaugarri eta diru kopuruak kontuan hartuta Tomas Eizmendi jaunak proposatu du, aipatutako jarduketa eremuari dagozkion eta etorkizunean beharko diren proiektuak egiteko beharrezko izango diren ondorengo aurrelanak zuzenean esleitzea:

- Plano topografikoa
- Azterketa geoteknikoa
- Odieta jabetzen balorazioa

Kontseiluak jakitun dagoela adierazi du eta zuzenean esleitzeko proposamena onartu du.

7. Mecanizados Osa S.L.ren eskutitza.

Mecanizados Osa S.L. enpresak bidalitako eskutitza irakurri da, bertan baimena eskatzen du Joxe Mari Korta Industriaguneko A.6.1.A Pabilioiko 5 modulua HARAI S.L. enpresari alokairuan uzteko. HARAI S.L. enpresa une honetan Mecanizados Osa enpresako langileek osatzen dute eta modulu horretan jarduera osagarri bat egin nahi dute.

Zumaia Lantzen S.A.rekin egindako Modulu horren salerosketa kontratuan ezarritako klausula bat betetzeko egin du eskaria Mecanizados Osa S.L. enpresak. Izan ere, klausula horretan jasotzen da eskritura egin zen egunetik hasi eta hiru urteko epean, erosleak saltzaileari baimena eskatu behar diola modulua alokairuan eman nahi izanez gero.

Kontseiluak erabaki du eskatutako baimena ematea, baina baldintza bat jarri du horretarako Mecanizados Osa S.L. enpresak eta Harai S.L. enpresak dagozkien Jarduera Proiektuak aurkeztea, hain zuzen ere.

Eta beste aztergairik gabe bilera amaitutzat jo da.

O E
PRESIDENTEA.

IDAZKARIA